

Independentziaren aldeko mozioak «ez dira bide egokia» EAJren ustez

«Planteamendu hutsak dira aldarrikatzen direnak» adierazi zuen Egibarrek

Joseba Egibar EAJko Euzkadi Buru Batzarreko eledunak «huts egite» eta «bide desegokitzat» jo zuen HBk independentziaren alde hasitako kanpaina eta zenbait udaletxetan EAren laguntzaz aurrera ateratako mozioak. PPren ustez, EA «kontsentsu estatutariotik» hurruntzen ari da.

BILBO

Egibarrek adierazi zuen HBren «epe laburreko» taktika dela kanpaina, «batzuetan EAren laguntzarekin». Hain zuzen ere, Gipuzkoako Oiazun, Bizkaiko Bermeo eta Nafarroako Etxarri Aranaz herrietan joan den ostiralean independentziaren alde onartu ziren mozioak «hasierako esperimentua» izan zirela baietsi zuen.

Atzo Bilbon burutu zen EBBren bileraren atsedendaldi batean egindako adierazpenetan, Egibarrek esan zuen EA mozio hauekin bat etortzeko arrazoia «HBri hurbiltzea bezalako aldean makalduta zeudela eta», alde hori betetzea izan zen, «eta agian une honetan mozio hauen alde agertzea egoki ikusi dute». Egibarraren iritzian, halere, horrela jokatzeko «huts egitea» izan zen.

«Alderdi hauek ezin dute independentzia generikoki planteatu eta hortxe geratzea. Aldarrikatzen direnak planteamendu hutsak dira, benetako Euzkadi batean ez dagoelako herri planteamendurako formulaziorik», argudiatu zuen EBBko eledunak.

Egibarrek segitu zuen esanez, Europako Ekialdeko nazionalismoaren leherketak Espainiako Gobernuaren behartu duela «Autonomien Estatuaren diseinuan seriotasun handia-



EAJko Euzkadi Buru Batzarra goizez eta arratsaldean bildu zen atzo Bilbon.

goaz sakontzera». Dena dela buruzagi jeltzaleak ziurtatu zuen Madrileko Gobernuak ez duela oraindik horren «irudirik».

Honi buruz, «urduritasuna erakusten duten kritika batzuk» aipatu zituen, bereziki Euskal Herrian eta Katalunian Europako Ekialdeko gertakizunen ondoren sortu diren eztabaida nazionalistek eragin dituzten kritikei buruz.

Hain zuzen ere, Rosa Conde Madrileko Gobernuaren ministro eledunaren eta beste autonomietako buruzagi sozialisten «nagusikeriak eta harrokeriak Autonomien Estatuari buruzko eztabaida serio eta sakona emateko itxura txarra» erakusten dutela gaineratu zuen eledun jeltzaleak.

PP: «EA KONTSENTSUTIK URRUNAGO» Leopoldo Barreda Bizkaiko PP alderdiko presidentek, Eusko Alkartasuna kontsentsu estatutariotik «urruntzen ari dela» adierazi zuen atzo. «Kontsentsutik egunero urruntzen ari da, herritarren gehiengoak onartzen duen aukeratik» zehaztu zuen.

«EAJrekin lehiazko EAK agertzen duen obsesioak EAEk autogobernurako azaltzen duen borondatea, Jugoslavia edo Soviet Batasunean gertatzen denarekin nahastera darma» adierazi zuen PPko parlamentariak. Barredak esan zuenez, EAK EAJrekin duen lehia horretarako, Garaikoetxearen alderdiak HBren laguntza onartu du udaletan, «nahiz

eta HB ETA erakundetik milimetro bat ere ez urrunduko».

EAren jarrera hau dela eta, Barredak EA Jaurralitzan egoteak «kalte» egiten diola uste du. «Ez da normala autodeterminazioa indarrean jartzea eskatzen duen alderdi bat autonomia administratzen egotea».

Espainiako Senatuak aldatzea beharrezkoa da Juventudes Socialistas-en ustez

Espainiako Senatuaren erreforma beharrezkoa dela dio Euskal Autonomi Elkartearen 'Juventudes Socialistas' erakundeak (JJSS) landu berri duen dokumentu batean. Melchor Gil idazkari nagusiak atzo adierazi zuenez, instituzio honek «komunitateen herri ordezkariak» izan behar du, Kongresuak berriz «Estatuaren herri ordezkariak».

Aipatutako dokumentua Barcelonara eramango dute, Diada eguna dela eta zenbait ekintzetan parte hartuko bait dute Kataluniako Kide Sozialistekin batera. Bi erakundeek dokumentu bat egingo dute, Europako prozesu independentistak, eta horrek eragin dituen komentario politikoak aztertzeke.

Espainiako Senatuak aldatzeko beharri buruz, Melchor Gilek adierazi zuen etorkizunean joerak zentzu horretan egingo duela. «Ez dirudi arrazoizkoa administrazioaren aldatzea arinegi baten bila joatea» gaineratu zuen.

«Espainiaren etorkizun autonomikoan konfidantza badago eta ezarritako ordenarekiko leialtasunez jokatzeko gero soilik planteatu ahal izango dugu etorkizunean egitura federala» azaldu zuen 'Juventudes Socialistas-eko' idazkari nagusiak.

«Bestalde, uste dut —jarraratu zuen— nazionalistek prozesu hau arriskuan jartzen dutela eta geldierazi ere egiten dutela sistema politikoak zalantzan jartzen duten bitartean».

Autodeterminazioarekiko jarrera aztertu zuen EEko exekutibak

Z.Z. / BILBO

EEko exekutibak alderdi honen autodeterminazioari buruz izan behar duen jarrera eztabaidatu zuen atzo Bilbon, seguruena hilabete honetan bertan bilduko den Biltzar Tipiari aurkeztuko dion txostena erabakitzeke.

Artikulu hau idazteko uenean EEko exekutibak oraindik erabakirik hartu gabe bazuen ere, Jon Larrinaga alderdi honetako idazkari nagusiak atzo bi egunkaritan kaleratutako iritzi artikuluan Espainiako Konstituzioaren araututako Estatuaren bidea defendatu zuen Euskal Herriarentzat eta Europako Ekialdeetako nazionalitateetatik bereizi zuen.

«Bi elementu bereizgarriak daude, —zioen Larrinagak— kualitatiboki garrantzitsuak, Euskadiko etorkizun politikoa baldintzatu eta datozen hamarkadetan Komunitateetako kanpoko Europako nazionalitateek hasitako prozesuetatik ezberdin izatea eragiten dutenak. Prozesu konstituzionalean partehartze aktiboa, demokrazia eta autonomia Estatu espainiarraren markoan apurka-apurka finkatzea, eta gaur egun astiro baina atzera egin ezi-

nik batasun politikorantz abiatzen den Europa komunitarioko parte izatea».

Ildo horretatik autodeterminazioaren eskakizuna «anakronismoa» dela ziurtatu zuen EEko idazkariak eta «berez, gure herriaren benetako historiarekin zerikusirik ez» duela erantsi zuen. 'Berrikuntza Demokratikoa' sektoreko idazkari nagusiak aurrean, 'Añamendi' sektoreak «progresorako oinarri» bezala jotzen du autodeterminazioa, korronte bezala eratzeko txosten politikoa agertzen denez.

Halere, Añamendik ere Euskal Autonomi Elkartearen Estatuaren baitan kokatzen du autodeterminazioaren muga: «Euskadiko Ezkerrek bere sortze unetik autodeterminazioaren printzipioari eman zion zentzuna, urte askotan aldeko eta aurkako interpretazioekin prekatu eta gero, Eusko Legebiltzarreko bilkurak hartutako ebazpenean amaitu zen. Printzipio eta irakurketa horrek bultzatzen du Euskadiko Ezkeretik eta Añamenditik defendatzen dugun autogobernurako bidea, gure Autonomia Estatuaren bidea, alegia».

Fernandez Ordoñez: «Independentziak EK eta NATOtik irtetea esan nahi du»

MADRIL

«Independentziak Europako Elkartetik eta NATOtik irtetea esan nahi du, eta hori euskal eta katalan politikariek badakite», adierazi du Francisco Fernandez Ordoñez, Espainiako Kanpo Arazoetarako ministroak El Pais egunkariak atzo argitaratu zuen.

«Europako eraikuntzak —gehitu zuen— espazio sinbolikoa gordetzen du elkarte autonomoentzat eta EKren batasun politikoa proiektuak Erregioen Batzorde bat aurrikusten du, izaera aholkularia duena eta ahalmen binkulanterik gabekoa». Francisco Fernandez Ordoñezek erabateko adierazpenak egin ditu Espainiako Gobernuak gogokoen duen egunkarian, Rosa Conde Gobernu bozeramaileak independentziaren eztabaidan «ezta bi segundu

ere» emango zuela esan eta bi egunetara.

Fernandez Ordoñezen ustez, independentzia «hutsa jautsi egitea da edozein aukera europarretik isolaturik gelditzeke». Kanpo Arazoetarako ministroaren hitzak gogorrik izan dira: «Europako Estatu batek ere ez luke onartuko independente gisa eta eginez gero Estatuak beto eskubidea du Europako elkartean edo NATOn sartu ahal izatea eragotzeko».

Independentzia eta autodeterminazioaren inguruko eztabaidak «helburu elektoralistak» ditu eta ez dago bide horretatik ibiltzeko erabakioritasunari, Fernandez Ordoñezen ustez.

Espainiako Kanpo Arazoetarako ministroak europar batasun politikoa proiektu indarrez hartzeko beharra agertu du.



Francisco Fernandez Ordoñez. EFE